

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

455

57/2023 EBAZPENA, urtarilaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, honako ebazpen honen hutsak zuzentzekoa: 1836/2022 Ebazpena, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Teknikari Laguntzaile Sanitarioak lanbide-taldeko Erizaintzako Laguntzailea kategorian (Erizaintzako Laguntzailea, Osasun Mentaleko Erizaintzako Laguntzailea eta Osasun Mentaleko Monitorea lanpostu funtzionalak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1836/2022 Ebazpenaren bidez onartu ziren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Teknikari Laguntzaile Sanitarioak lanbide-taldeko Erizaintzako Laguntzailea kategorian (Erizaintzako Laguntzailea, Osasun Mentaleko Erizaintzako Laguntzailea eta Osasun Mentaleko Monitorea lanpostu funtzionalak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako akats bat atzeman da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2022ko azaroaren 27an argitaratutako ebazpenean, eta zuzendu egiten da II. eranskinean.

Honakoa esaten den lekuan:

«II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENTA KATEGORIA HONETAN: OSASUN MENTALEKO ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA».

Honakoa esan behar du:

«II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENTA KATEGORIA HONETAN: ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA (ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA, OSASUN MENTALEKO ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA ETA OSASUN MENTALEKO MONITOREA LANPOSTU FUNTZIONALAK)».

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarilaren 3ko 57/2023 Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarilaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.